

Nitasunaren literaturak zabalkunde handia lortu du azken urteotan euskal literatura garaikidean. Nia gune gisa harturik idatzi zuen Kirmen Uribe bere 'Bilbao-New York-Bilbao' nobela oroigarria, autofikzioa zutabe nagusi zuela. Iazko urtean liburu nagusi bi eman ziren argitara: Miren Agur Meaberen 'Kristalezko begi bat' eta Bernardo Atxagaren 'Nevadako egunak', aitorpenetik haratago joan doazen lan bi.

Hirurak deitu izan dira nobela, lanotan autobiografia nagusi bazen ere, joera hori moldatu eta argumentua fikzioaren bidean jarri zutelarik hiru idazleok.

Pello Salaburuk (1951), ordea, bere 'Errateko nituenak. Cuzcoko kronika' lanaren tonu nagusi gisa aukeratu du autobiografia, beste alor batean Idoia Estornes Zubizarretak 'Cómo pudo pasarnos esto' liburuan egin duen bezala, baina horrek baino bide handiagoa emanek kronikari.

Nitasunaren aroa ote dugu gurean? Literatura teorikoei diote 'niaren' literatura askatasun garaiekin loturik dagoela. Gizakia libre sentitzen den uanean hasten dela bere buruari buruz, lotsarik gabe idazten. Eta Pello Salaburuk esan dezake Montaignek bezala «liburu horren gaia ni neu naiz», besterik gabe.

'Errateko nituenak. Cuzcoko kronika' liburuaren teknika oso sinplea da; kontakizuna eta oroimena kronikaren barnean, oraingoak biltzen baitu barnean iragana. Egileak Cuzco-



JON KORTAZAR

NITASUNAREN BARNE HARIAK

«Nitasunaren aroa ote dugu gurean?», galdetzen dio bere buruari Kortazarrek

ra bidaia akademikoa egin du, Unibertsitateko gradu ondoko ikastaro batzuk antolatzeaz amoz. Bururik gabeko Burokraziak ia zapuztu du asmoa, eta artean egilea bakarrik dago Cuzcon zeregin handirik gabe, eta umore ona erakutsiz, harat eta honat, edo testuan horrenbestetan esaten denez 'goiti-beheiti'. Ibilideek eta bakardadeak aukera eman diote barne hariak biltzeko eta egilearen biografian oroimena indartzeko. Argitaratzaileek azpimarratu dute: «kronikaren fikzioaren eta errealitatearen nahasketa erakargarria» dela liburu adieraziz eta, berriz, fikzioari indar emanek.

Baina nik, oroitzen duen pertsonaia maite dut liburuan. Cuzcoko egindako bidaia benetakoa barne hariak biltzeko bidaiarako arrazoia da. Kanpoko bidaiak bidea erraztu dio barne bidaiari. Kronikak denboraren eta espazioaren arauak jarraitu behar ditu. Oroimenak, ordea, askatasuna du bere mugimenduan. Eta hauxe maite dut nik.

Egia da maisuki erabilia dela hizkuntza liburu honetan, aspaldi esaten zen bezala «iturriko hura bezain lirain» isurtzen duela egileak. Erraz irakurtzen da eta gozatzuz, baina, nire gustuko, tradizio joera ageri du maiz. Ez da hizkuntzazarena, ordea, liburuaren bertute bakarra.

Asko gozatu dut egileak erabili duen ikuspegiarekin. Kanpoko bidaia horrek bost egun hartzen baditu -ziklo bat osatuz, astelehene ostiralera-, barne bidaiak bizitza osoa hartzen du. Lehen kapituluak niaren etorkia, leinua eta gurasoen itzala haurtzaroan hartu du kontagai; bigarrenak, nagusitzea, sexualitatearen agerpenen garbi ageri delarik; hirugarrenak ez du ahaztu egilearen konpromiso politikoa zehaztea eta bere jarraibidea Euskal Herriko inguru gatazkatsuan. Hirugarren atal horretan, 'Urriak 3, asteazkena' deiturikoan, egileak zuzen tratatu du gaia, ohi duen zorrotzasunarekin. Laugarrenean, Cuzcoko zenbait historiarekin batera bat egiten du bigarren kapituluak gaiekin, orain erruki eta sakontasun handiagoarekin, heldutasunarekin. Bosgarrenean, berriz, Macchu Picchura egindako bidaia kontatzen du eta han ezagututako emakume biren historia.

Ez dira falta egilearen bidean gorriak pasatu izanaren oihartzunak eta azken hilabeteetan Euskaltzaindian izandako eztabaiden itzala ere argi kontatzen du (57-61 or.).

Gai bat beste baten barnean agertu izan badu ere Pello Salaburuk, eta hori bada teknika nagusia, paralelotasuna ere ezin da ahaztu. Hango egoerak bidea eman dio hemengoaz aritzeko. Idazkera galaia bada, kontakizun teknikek eman diote indarra kontakitari, nahiz batzuetan (bukaeran, adibidez) ahulezia agertzen den. Hori guzti hori ezin baita ametsa izan.

Poesia hausnarketak

|| JAVIER ROJO

Pentsamendua eta poesia elkartu nahi dituen korrontearen barruan koka daiteke Felipe Juaristiren poesia, 'Piztutako etxea' izenburuko liburu honetan ikus daitekeen bezala. Harreman hau, gainera, bi modutan aurkezten zaio irakurleari. Alde batek haren poesiaren abiapuntua filosofia dela harro erakusten da. Horretarako nahikoa da ikustea zeintzuk diren poema bakoitzaren atarian agertzen diren aipuak, salbuespenen bat alde batera utzita denak baitira filosofoen aipamenak, eta filosofoenak ez diren kasuetan, beren lanbidean (adibidez zientzian) askotan filosofoaren esparrutik hurbil aritu izan diren aipamenak baitira. Eta filosofoen artean, oker ez banago, Spinoza da gehienetan agertuko zaiguna. Bestalde, Felipe Juaristiren poesiak hausnarketara bultzatu nahi du irakurlea. Hogei poema luze osatzen dute liburu hau, eta batez ere ideiak garatzen dira bertan.

Gauzak honela, poesia honek batzuetan oso itxura abstraktua hartzen du, sentimenduak baztertu edo behintzat mugatu beharrean aurkituko balitz bezala. Gaiak askotarikoak dira, bertan planteamendu etikoez, materiaz eta izpirituez, edota amodioaz eta desiraz ere, hitz egiten baita. Baina azken kasuetan ere, amodioaz eta desiraz aritzen denean ere, modu abstraktuan agertzen zaizkigu aipatuta, emozioei bridak jartzeko zaizkielarik, honelako gaiak berez erakar ditzaketan sentimenduzko



PIZTUTAKO ETXEA

Egilea: Felipe Juaristi. Olerkiak. Argitaletxea: Erein. 72 orr. Donostia, 2014. Salneurria: 10 euro

jarrerak baztertu nahirik. Planteamendu zorrotz horren ondorioz, poema hauek batzuetan silogismoen itxura hartzen dute, non paradoxak nabarmetzen diren. Baina batzuetan, idazleak jarritako muga estu horietatik ihes egiten dute poemek, eta irudiak bata bestearen gainetik trumilka agertzen zaizkigu surrealismotik hurbil dagoen irudien segida sortuz. Momentu horietan, idazleak poemari aske ibiltzen uzten dihonean, sortzen da benetakoa poesia. Ordura arte poesiaren eta hausnarketaren oreka beti hausnarketaren aldekoa delarik, hausnarketaren zama alde batera uzten da eta benetako zirrara sortzen duten poemekin egiten dugu topo.

Horixe gertatzen da poema liburu honen bigarren erdian. Gai berberak aipatzen direla ikusiko dugu, baina momentu horretan pentsamendua ez da gaia kontrolatu nahi duen bidezain zorrotza. Orduan desiraz hitz egiten jarraitzen zaigu, baina desira idea soil bat baino gehiago dela erakutsiz. Sentimenduen munduan barnertzen gara, non, orduan bai, gainez egin nahi duten emozioekin egiten baitugu topo.

ARANTXA URRETABIZKAIA

LIBURUA ETA ARROSA



Askorentzat zerbait ona ala txarra, aproposa ala desegokia den erabakitze orduan, garrantzi handia du zera horren jatorriak. Dela ohitura, janaria edo janzkera. Halakoentzat, bertakoa ona da, ia salbuespenik gabe eta kanpotik datorrena, txarra edo, gutxienez, susmagarria, berrogeialdian jarri beharrekoa.

Erabakia saihesteko modua izan daiteke, errazkeria. Janari ezezagun bat dastatu baino lehen, bertakoa ez delako baztertu egiten dugu, aldarrikatzen dugu bertakoa dela hoberena, gainerako sukaldaritzek edo janariak ez direla gurea bezain onak.

Agian hamarraldi batzuen buruan gure bilakatuko dugu janari hori eta ahaztu egingo zaigu edo zuzenean ez dugu jakingo babarrunak, tomatea, patata eta artoa kanpotik etorri zirela duela mende mordoak bat. Gauza bera gertatzen da, adibidez, hainbat ohiturarekin. Askok ez dio bere buruari galdetzen nondik datorren Errege Magoen ohitura edo noiztik ezkontzen diren emakumeak zuriz, gure amona edo gure ama beltzez jantzita ezkondu baziren ere.

Beste muturrean daude bertakoa gutxietsi



Gaur egun zuriz ezkontzen gara. :: EFE

eta kanpoko miresten dutenak, baina iruditzen zait gutxiago direla horrelakoak gure artean. Gehienok nahasketa bat egiten dugu, nor berea, eta leku askotatik hartutako zerak sartzen ditugu geure bizitzan.

Zernahi den, kanpoko ohitura bat goraiatu nahi nuke gaur, ohitura arrotz bezain ederra. Hain zuzen, Bilboko liburu azoka hasi berri delarik, orain hilabete, apirilaren 23ko liburu bat eta arrosa bat oparitzeko ohitura katalana. Dirudienek, aspaldian arrosa emakumeontzat zen eta liburu gizonentzat, baina gaur egun biak dira biezak.

Miresgarria da jendea liburuak erosten ikustea, uholdeka, askok eskuan aurten lau euro balio zuen arrosa. Gure artean Durangoko azoka izan daiteke antzeko zerbait, erkaketa pittin bat bortxatzea zilegi balitz. Ez dira erositako liburu guztiak irakurriko eta arrosa gehienak zapuztuak helduko dira etxera, zakarrontzi batean bukatuko dute edo tabernako mahai gainean ahaztuta. Ametsak laburrak dira beti.

SALDUENAK

FIKZIOA

- 1 Nevadako egunak**
Bernardo Atxaga. Pamiela
- 2 Ez zen diruagatik**
Ana Jaka. Elkar

EZ FIKZIOA

- 1 Lehen mundu gerra eta Euskal Herria**
Eneko Bidegain. Elkar
- 2 Euskal Herriaren historia laburra**
Iñaki Egaña. Txertoa

- 3 Inon ez, inoiz ez**
Iban Zaldua. Elkar
- 4 Erraiak**
Danele Sarriugarte. Elkar

- 3 Hitzunpolisa, euskaltasunaren...**
Jon Sarasua. Pamiela
- 4 Haur kantak. Euskal herriko 60 abesti...**
Euskal kantuzaleen elkarte / Gara. Astero